

Pirinio Atlantikoetako
Departamendua

HERRIKO JANTEGIA BARNE ARAUDIA

2025-2026ko IKASTURTEA

(Zuen haurrekin artoski irakurtzekoa, zerbitzuaren ibilera onarendako)

Herriko Etxeak du jantegia kudeatzen, Euskal Hirigune Elkargoarekin lankidetzan, gure lurraldeko eskola-ostalaritza haren eskumenekoa baita. Ibilera-araudia Elkargoko webgunean kontsulta dezakezue: <https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/enfance-et-jeunesse/la-restauration-scolaire>

Eskainia den zerbitzu bat da, ez eta betebeharrak: arauak aplikatuak dira, zerbitzuaz eta zaintzaz arduratzen diren herriko langileen ardurapean.

1. artikulua: IZEN-EMATEA

Janategian **EGUN GUZIZ BAZKALTZEN DUTEN** haurrak "iraunkor" gisa ekarriak dira eta izen-ematea zuzenean egiten da egunero. Haurra eskolatik eskas baldin bada eri delakoan, egokitzen bat egiten da egunean berean. **EGUN GUZIZ BAZKALTZEN EZ DUTEN** haurrak "noiztenkako" gisa ekarriak dira, eta haien izen-ematea aitzineko astean osatu eta itzuli beharreko fitxa baten bidez egiten da.

Aitzinetik ezeztatu ez duzuen bazkariaren dirua ez zaizue itzulia izanen, edozein izan arrazoia.

Beranta edo hutsegite kasuetan, burasoen 09:00ak aitzin abisatu behar dute, telefonoz bakarrik, 05-59-56-83-50 zenbakira deituz.

2025eko buruilararen 1az geroztik, bazkariaren prezioa **4,80 €**koa da. Herriak 1,30 € hartzen du bere gain. Burasoen esku gelditzen den parte hartzea **3,50 €**-koa da.

Hilabete guziz faktura bat egiten eta igortzen diegu burasoei e-mezuz.

Eskertzen zaituztegu, zuen helbide elektronikoa irakurgarri izateko gisan idaztea, otoi:

.....@.....

Zure telefono zenbakia(k):.....

Herriko Etxeak bankuko diru-kentze automatikoa plantan ezarri duenez, fakturazioa hilabete guziz egiten da eta diru-kentzea ondoko hilabeteko 15ean iraganen da.

Ondorioz, banku-biramendurik ez ezazula sor edo egin.

Ordainketa egin izan ez bada, Auzapez andereak haur bati jantegiko sarbidea errefusatzeko eskubidea du.

Herriko Etxea zuen esku egoten da edozein xehetasunen emateko.

2. artikulua: AGINDUAK

Haur bakoitzak bere izenaz markaturiko ahozapi bat ekarri behar du. Janategian sartu baino lehen, haurrek eskuak garbitu behar dituzte. Janategian sartu eta jantegitik atera behar dira isiltasunean eta lasaitasunean. Ez dute jateko beharrezkoak zaizkien besterik ekarri behar (sakelako telefonoak debekatuak dira).

3. artikulua: ZAINTZA

Haurrak herriko langileen ardurapean daude, 11:50etik 13:05era. Irakasleek, etxean bazkaltzen duten haurrak 13:05etik goiti hartuko dituzte.

4. artikulua: DIZIPLINA

Diziiplina arau batzuk errespetatzekoak dira, bazkariaren ibilera ona bermatzeko:

- langileak errespetatu,
- lagunak errespetatu,

Helbidea: BARDOZEKO Herriko Etxea - SALA Jauregiko plaza, 105. - 64520 BARDOZE
Telefono zenbakia 05 59 56 80 59 - Helbide elektronikoa: mairie@bardos.fr

- materiala eta janaria errespetatu,
- mahaitik ez zutitu baimenik gabe.

5. artikulua: ERREMEDIIOAK

Jantegiko langileek ez dute erremediorik emateko baimenik, ordenantza izanik ere.

Alergien kontrako tratamendua:

Erabiltzaileen zerbitzu publikoetarako irispide-berdintasunaren printzipio orokorraren arabera eta 2003ko irailaren 8ko 2003-135 zk. zirkularra zorrozki errespetatzeko, osagarri arrazoiengatik (alergiak, janari-intolerantziak edo eritasun kronikoak) haur batek janari-erregimen berezia segitu behar duelarik, Harrera Indibidualizaturako Proiektu (HIP) bat finkatu beharko da, Euskal Hirigune Elkargoko eskolako ostalaritzarako ibilera araudian zehaztua den prozeduraren arabera, zeina ondoko webgune-helbide honetan kontsulta dezakezun: <https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/enfance-et-jeunesse/la-restauration-scolaire>

6. artikulua: ERANTZUKIZUNA

Jantegiko langileek, arau hauen funtzionamendu ona bermatzen dute, hurrek bazkaltzen dutelarik.

Arazo kasuan eta honen larritasunaren arabera, langileek berehalako neurri egokia har dezakete edota Auzapez andereari horren berri eman diezaioke.

Auzapez andereak erabaki dezake burasoei arazo edo makurraren berri ematea (telefonoz, e-mailez edo kainerrean hitz bat utziz) edo haiek deitzea. Arazo edo makurrak behin baino gehiagotan gertatzen balire, haurra zerbitzutik kanpora daiteke, aldi baterako edo behin betiko.

Jantegiari buruzko eskabide oro Herriko Etxeari helarazi behar zaio, Auzapez andereari zuzenduriko gutun baten bidez.

7. artikulua: ARAUDIA

Haur bat kantinara joateak erran nahi du burasoek barne araudi hau onartzen dutela, bai eta mementu horretan, bertan ibiltzea irregular gisa ekarria baldin bada ere, edo ez baldin bada orainokoan ibiltzerik aitzinikusia.

Arretaz irakurtzekoa den araudi hau bi aleetan emana da:

- bata kontserbatzeko,
- bestea, burasoek sinatu eta, 8 egun barne eskolara ekartzekoa.

Araudi hau familian irakurri eta komentatu beharko da, haur bakoitzak kolektibitate-biziaren betebeharren kontzientzia ikas dezan.

Oroz gainetik nahi dugu otorduak elkarren arteko memento goxoak izan daitezen.

BARDOZEN, (e)an



Auzapeza,

Maïder BEHOTEGUY

1. burasoaren izen-deiturak	2. burasoaren izen-deiturak	Haur(ar)en izen-deiturak
Sinadura	Sinadura	
		Haur(ar)en sinadura(k)